

DIRU SARRERAK



Hasierako funtzionamendua martxan jarri ahal izateko, diru-iturri osagarriak behar dira; horretarako, ekintzaileentzako dauden subentzioak aztertzea aurreikusten dugu. Gure lokalaren alokairuak 9,50 €-ko tarifa du orduko, eta bezeroek prezio hori egokitzen eta eskuragarritzat jotzen dute. Prezioa erreserbatutako ordu-kopuruaren arabera alda daitekeen arren, tarifak instalazio eta tresna guztiak mugarik gabe erabiltzeko aukera barne hartzen du.

Ordainketa erraza eta azkarra da, erreserba egitean bertan gauzatzen baita, online edo txartel bidez. Gainera, erabiltzaile maizentzat aukera malguak eskaintzen ditugu, eta gure dokumentuan jasotzen den bezala, janari-dohaintzak egiten dituzten bezeroek deskontu bereziak jasotzen dituzte.